

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2013ko uztailaren 15ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

2.- 2013-KO UZTAILAREN 1-EKO TOKIKO GOBERNU BATZARREKO 9. PUNTUA ZUZENTZEA.

2013ko uztailaren 1eko Tokiko Gobernu Batzarreko 9. puntua, aho batez, zuzentzea erabagi dabe batzordekideak, eta holan geratuko da:

***9.- BERMEOKO UDALETXEA BIRGAITZEKO PROIEKTU BASIKOA, EGITE PROIEKTUA ETA DOKUMENTAZIO OSAGARRIA IDAZTEA ETA OBRAREN ZUZENDARITZA TEKNIKOA ESLEITZEA.**

Planteatutako gaia

Bermeoko Udaletxea birgaitzeko Proiektu Basikoa, Egite Proiektua eta dokumentazio osagarria idaztea eta Obraren Zuzendaritza teknikoa esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Udaletxea barriztetako proiektuak egiteko kontratazinorako baldintza-agiriak onartu ziran eta Bermeoko arkitekto guztieri parte hartzeko gonbidapena bialdu jaken.

Bigarrena: Proposamenak aurkezteko epean, 7 proposamen jaso ziran.

Hirugarrena: Dokumentazino orokorra zabalduta, egondako akatsak zuzentzeko epea zabaldu zan eta akats guztiak epean zuzendu ziran. Jarraian, dokumentazino teknikoa baloratu zan eta, azkenik, proposamen ekonomikoa baloratu zan, egindako txosten teknikoetan jasotzen dan moduan.

Argudioak

Bakarra: Aurkeztutako dokumentazinoa aztertu ondoren, hauek dira proposamenek lortu dituzten puntuazioak:

	Ideia- kalitate arkitektonikoa eta egokitasuna	Proposamen ekonomikoa (55.347,30 €)	Agiriak aurkezteko epea (2013-11- 30)	Guztira
Josan Apraiz	6	(45.385 €) 5,74	10	21,74
Begoña Tavera Herrera	8,67	(40.500€) 8,56	10	27,23
Arkideiak	6,17	(47.132 €) 4,74	10	20,91
Etxebarria, Txintxurreta eta Allika	5,83	(38.000 €) 10	10	25,83
Deñe E. Uriarte	5	(47.045 €) 4,79	10	19,79
Pablo Basterrechea	5,17	(44.300 €) 6,37	10	21,54
Lartitegi, Llor eta Pagazaurtundua	7	(44.800 €) 6,08	10	23,08

Puntu gehien lortu dituen proposamena, oker edo hutsik ezean, *Begoña Tavera Herrera* andrearena da.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: *Begoña Tavera Herrera* andreari Bermeoko Udaletxea birgaitzeko Proiektu Basikoa, Egite Proiektua eta dokumentazio osagarria idaztea eta Obraren Zuzendaritza teknikoa esleitzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2013ko uztailaren 24an.

ONETSIA
ALKATEA